

KIROL ZERBITZUEN ARAUDI NAGUSIA

LEHENENGO TITULUA XEDAPEN NAGUSIAK

1 artikulua.

Hernaniko Udalaren xedea Hernaniko herritar orori kirola praktikan jartzeko aukera ematean datza. Horretarako, kirola garatu nahi du kirol hitzaren esanahi zabalenarekin.

2 artikulua.

Araudi honek, erabiltzaile edo bezeroen eskubideak eta betebeharrak eta Udalaren kirol instalazioak erabiltzeko baldintzak arautzea du helburu.

3 artikulua.

Hernaniko Udalak, araudi hau argitu, aldatu edo garatzeko xedapenak edo ebazpenak emateko eskubidea bere esku gordeko du. Araudi hau eta gainerako arau bereziak (ordutegiak, prezio publikoak) jendearen esku geratuko dira, bere bulegoetan eta instalazio bakoitzaren harrera lekuan.

4 artikulua.

Udalaren kirol instalazioak erabiltzeko eskubidea dute pertsona, ikastetxe, kirol elkarte eta taldeek; baita helburutzat kirolaren praktika sustatzea eta babestea duten beste erakunde guztiek ere, betiere instalazioetara sartzeko baldintzak betetzen dituzten bitartean.

Astigarragako kirol instalazioetako abonatuak bi udalerrien artean sinatutako hitzarmenean jasotzen diren Hernaniko Udalaren kirol instalazioak erabiltzeko eskubidea izango dute, hitzarmenak indarrean dirauen bitartean.

Abonatu horiei instalazio bakoitzaren araudian jasota dauden eskubide eta betebeharrak aplikatuko zaizkie.

Aldi berean, eta noizbehinka, instalazio horiek kirola ez den beste erabilera batzuk izan ditzakete, baina bakoitzak bere baldintzak bete beharko ditu.

5 artikulua.

Urtero, Udaleko Kirol Sailak zerbitzuak emateagatik eta jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko tasen proposamena luzatuko dio Osoko Bilkurari. Osoko Bilkuraren onespena derrigorrezkoa izango du prezio horiek indarrean jarri ahal izateko. Tasak onartu ondoren, Kirol Sailak hartu behar dituen neurriak hartuko ditu preziook jakinarazi eta ezagutarazteko.

BIGARREN TITULUA ERABILTZAILAK

6. artikulua.

Erabiltzaile mota hauek daude:

- 1 Abonatuak.
- 2 Abonatuak ez direnak.
- 3 Kirol elkarteak.
- 4 Ikastetxeak.

1. KAPITULUA: ABONATUAK.

7. artikulua.

- 1 Edozein abonatu motaren onuraduna den pertsona oro da abonatua.
- 2 Abonatuak familiarrak edo banakakoak izango dira. Hernaniko Udalak izango du gizarte mailan interesgarriak diren pertsona edo kolektiboek hobariak emateko ahalmena. Abonatuak izateko eskaera egin behar da, eta dagokion prezio publikoa ordaindu.
- 3 Abonatu familiarrak onuradun hauek izango ditu: ezkontideak, adingabeko seme-alabak eta diru-sarrerarik ez duten adindunak, 30 urte artekoak. Etxebizitza berean erroldatutako izateko bikoteak abonatu familiarra egin ahal izango du. Familiako kide bakoitzak txartel pertsonala izango du.
- 4 Abonatu-txartela pertsonala eta besterenezina izango da.
- 5 Abonatu-txartela galtzean, berehala jakinaraziko zaio Udal Kirol Zerbitzuari. Udal Kirol Zerbitzuak abonatu-txartel berria egingo du, aldez aurretik horretarako ezarritako prezio publikoa ordaindu beharko delarik.
- 6 Abonatu izateari utzi nahi dionak Hernaniko kiroldegiko bulegoetan jakinarazi beharko du, hurrengo ordainketa egiteko zehaztuko den eguna baino lehen. Horrela egingo ez balu, hurrengo urtean ere abonatu izaten jarraitu nahi duela ulertuko da.
- 7 Abonatuaren tasa honela ordaindu ahal izango da: banketxeren batean helbideratuta, Hernaniko kiroldegiko bulegoetan banku-txartelaren bidez, edo Hernaniko Udalaren kontu batean dirua sartuta, Hernaniko Udalak berak zehaztutako edozein banku erakundetan.
- 8 Abonatuaren kuotari dagozkion erreziboak itzuliz gero, edo ezarritako epean ordainduko ez balira, ordaindu ez dutenei baja emango zaie berehala.

2. KAPITULUA: ABONATUAK EZ DIRENAK

8. artikulua.

1. Abonatuak ez diren erabiltzaileek kirol instalazioetara eta hango zerbitzuetara sartzeko aukera izango dute. Horretarako, saio bakoitza hasi aurretik, erabili nahi duten zerbitzuarentzako ezarritako tasa ordaindu beharko dute.
2. Instalazioetara sartzeko tasak ez dira berdinak izango 18 urtetik gorakoentzat eta 18 urtetik beherakoentzat.

3. Kiroldegian kontrolerako dauden langileek eskubidea izango dute instalazioetara doan pertsonaren NANA edo adina egiaztatzeke agiria eskatzeko.

3. KAPITULUA: KIROL ELKARTEAK.

9. artikulua

1. Hernaniko Udalak lehiaketa kirolaren baliozko ordezkari bakartzat legez eraturako kirol elkarteak hartuko ditu, Eusko Jaurlaritzako Kirol-kluben nahiz Kirol-elkarteen Erregistro Orokorrean, eta Hernaniko udal intereseko elkarten erregistroan azaltzen direnak.

2. Hernaniko Udaleko kirol instalazioak erabiltzen dituzten kirol elkarteetako kirolariak kiroldegiko abonua egin beharko dute, horretarako ezarriko diren baldintzen arabera.

3. Aurreko puntuan zehaztutako baldintzak betetzen dituzten kirol elkarteek erabil ditzakete Hernaniko Udalaren kirol instalazioak beren jardueretarako, betiere, Hernaniko Udalak zehaztutako baldintzak betetzen badira.

4. Jarduera orduen banaketa hitzarmen bidez edo Hernaniko Udaleko Kirol Saileko delegatuak emandako ebazpen bidez egingo da.

5. Kirol delegatuak kirol elkarten jarduerak eten ditzake horretarako arrazoi sendoren bat badago, Kirol Batzordeari alde aurretik jakinarazita.

6. Lehiaketa ofizialetarako, kirol elkarteek burutu behar dituzten jardueren egutegia aurkeztu beharko dute, idatziz eta garaiz.

7. Entrenamendu eta lehiaketa ofizialetako ordutegiak kirol instalazioak berak dauzkan jarduera eta ordutegietara egokitu behar dira. Ordutegi horiek denboraldi baterako iraupena izango dute.

8. Hasiera ordua ez da hamabost minutu baino gehiago atzeratuko, arrazoia, betiere, instalazioarena ez bada. Kasu horietan, gainontzeko programazioari eragingo dionez, partidua bertan behera utziko da. Atzerapen horiek sortutako gastuak erakunde antolatzaileak ordaindu beharko ditu.

9. Kirol elkarteek antolatutako kirol ekintzen erantzukizun zibila beraiena izango da. Horretarako, dagokion erantzun zibileko aseguruak kontratatu behar dute eta berau indarrean dagoela eta nahikoa dela justifikatuko dute.

10. Kirol elkarteek udalaren kirol instalazioetan publizitatea jarri nahi badute, baimena eskatu behar dute. Baimena jasoz gero, kontrakorik esan ezean, ondorengo irizpide hauek bete beharko dituzte:

a) Publizitatea jokatzen den esparruan eta inguruan bakarrik jarriko da eta norgehiagoka ofizialak dauden garaian bakarrik.

b) Publizitatea ipintzeko eremura sartu ahal izango dira klubeko kideak beren publizitatea ipintzera. Norghegiagoka ofizialerako erreserba egin zutenean adostutako denboran bakarrik ipini ahal izango dute.

c) Publizitatea ipini eta kentzeko lana erakundeak egingo du; lan hori jokatzeko eremua, hormak edo pintura hondatu gabe egingo du.

d) Publizitateak dekorazio eta estetika arau batzuk bete beharko ditu. Alkoholaren eta tabakoaren arauak ere bete beharko ditu, eta ikuskizun publikoarekin lotutako beste edozein arau ere bai.

11. Kirol elkarte bateko edozein taldek ezingo du instalazioa erabili, bertan taldeaz arduratuko den pertsona heldurik ez badu.

4. KAPITULUA: IKASTETXEAK

10.artikulua

1. Hernaniko ikastetxeek Hernaniko Udaleko kirol instalazioak erabiltzeko aukera izango dute euren eskola orduetan, betiere kirol instalazioen ordutegiaren barruan, tasak ordaindu gabe eta ezarriko diren baldintzetan.

2. Ikastetxeetako taldeak ikastetxeko irakasle batek lagunduta sartuko dira instalaziora, eta irakasle horrek ikasleen ardura izango du.

3. Eskola-kirolak udalaren kirol instalazioak erabiltzeko aukera izango du, zehaztuko diren baldintzak beteta.

4. Eskolaumeen txapelketak direnean, antolatzaileek garatuko diren jardueren berri eman behar dute, idatziz eta garaiz.

HIRUGARREN TITULUA IKASTAROAK ETA KIROL KANPAINAK

1. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

11. artikulua.

1. Kirol Sailak, urtero, kirol ikastaroak eta kanpainak antolatuko ditu biztanleria osoa kirol praktikan jartzeko asmoz, Udalaren Kirol Zerbitzuak duen gaitasunaren arabera.

2. Aipatutako ikastaroen eta kanpainen helburu nagusia erabiltzaileen gogobetetzea lortzea da.

3. Ikastaroen egitaraua ahalik eta modurik egokienean hedatuko du Kirol Zerbitzuak.

4. Ikastaroen kuotak dagozkien tasen arabera izango dira. Kanpainak eta txapelketak egiteko ere, dagozkien tasak ordaindu beharko dira. Ikastaroetako partaideek hori kreditatzeko pasea jasoko dute.

5. Ikastaro, kanpaina eta txapelketak burutu ahal izateko, gutxieneko eta gehieneko pertsona kopurua jarriko da. Beraz, ikastaroa emateko behar beste jenderik ez balego, ez litzateke ikastaroa emango.

6. Ikastaro batean lekua izanez gero, edozein mementotan eman ahalko da izena. Izena ikastaro osorako eman dela ulertuko da.

7. Ikastaro baten tasa ordaindu gabe uzteak ikastaroan baja ematea dakar.
8. Kirol Zerbitzuak edozein erabiltzaileri eska diezaioke kirola praktikatzeko gaitasuna duela ziurtatuko duen mediku-errekonozimendua egitea, ikastaro batean izena eman baino lehen.
9. Kirol delegatuak, ezinbesteko arrazoirik balego, ikastaro edo kanpainaren bat eten dezake aldi baterako edo betiko. Horrelakorik gertatuz gero, etenaldiari dagokion diru kopurua itzuli egingo luke.

LAUGARREN TITULUA INSTALAZIOETARA SARTZEKO ETA INSTALAZIOAK ERABILTZEKO ARAUAK

12. artikulua

1. Instalazioak erabiltzeko abonu- txartela edo txartel hori duela egiaztatzen duen agiria aurkeztu behar da. Sartzeko tasa ordaindu beharko da, edo ikastaroren bateko txartela erakutsi.
2. Agiri horiek kiroldegian kontrolerako dagoen edozein langilek eska ditzake.
3. Debekatua dago baloiarekin, pilotarekin edota beste edozerekin jolastea aldageletan, pasilloetan, harmailetan eta kirola egiteko ez den beste edozein lekutan. Kirol eremu bat erabiltzeko ordutegia finkatuta badago, eremu horretatik atera egin beharko da erabiltzeko ordua bukatzen denean, berariazko baimenik egon ezean. Erabileraren amaiera orduak bat egiten badu instalazioa ixteko orduarekin, gutxienez 10 minutu lehenago amaitu beharko da saioa.
4. Ikusleek instalazioetan, lehiaketetan eta ikuskizunetan egin dezaketenaren erantzukizun osoa lehiaketa edo ikuskizuna antolatu duten erakundeek izango dute.
5. Instalazioak erabiltzeko baimena eskatu duen elkarteak edo pertsonak ordaindu beharko ditu erabilera txarragatik gertatzen diren kalteak. Txapelketa ofizialetan gertatuko balira, kalteak Federazioari eta dagokion klubari jakinaraziko litzaizkioke, eta bertako klubak, kontratugilea, izango da aurkako taldeek bertan eragindako kalteen erantzule subsidiarioa.
6. Udalaren kirol instalazioetan beti erabili beharko dira kirola egiteko arropa (kirol bakoitzak eskatzen duena) eta berariazko oinetakoak (kalekoak ez direnak). Baimen berezia beharko da kirolerako ez den jantzia erabiltzeko.
7. Udalaren kirol instalazioetara doazenek leihatilak erabiliko dituzte gauzak gordetzeko, kirola egin bitartean. Kirol jarduera amaitutakoan, leihatila libre utzi beharko dute.
8. Erabiltzaileen intimitatea babestu eta errespetatzearen, guztiz debekatuta egongo da argazki zein bideo kamerak erabiltzea, telefono mugikorrek, PDAk edo funtzio hori duten bestelako gailuak barne, pertsonen intimitateari eraso egin dakiokkeen leku guztietan. Guztiz debekatuta dago aldagela, bainu, sauna eta antzeko aretoetan irudiak hartzea. Espazio komunetan irudi pribatuak hartu ahalko dira, baldin eta irudietan ager daitezkeen pertsonen horrelakorik ez dutela nahi adierazten ez badute. ageri diren pertsonen ez dutela horrelakorik nahi adierazten ez badute. Kirol instalazioetan zaintzarako jarritako bideo kamerak udaltzainek ikuskatuko dituzte eta indarreko legeriak ezarritakoari jarraituz instalatu dira.
9. Udalaren kirol instalazioetan ezin da jan, ezta kristalezko gauzarik sartu ere. Horretarako badaude toki jakin batzuk. Barrura ezin da animaliarik sartu; aldageletatik kanpo ezin da arroparik erantzi edo jantzi; sexu bateko pertsonak ezin dira beste sexukoei dagozkien eremuetan sartu, 6 urte baino gehiago badituzte. Osasunaren, gizalegearen, higienezaren, intimitatearen eta garbitasunaren kontra doan guztia dago debekatuta.

BOSGARREN TITULUA ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

1. KAPITULUA: ESKUBIDEAK.

13. artikulua.

Abonatu guztiek, abonu-txartela aurkeztuta, honako eskubide hauek izango dituzte:

1. Hernaniko Udalaren instalazio guztietara nahi dutenean sartzeko eskubidea, kasu bakoitzean zehazten diren ordutegiak eta mugak kontuan hartuta.
2. Prezio merkeagoa Kirol Sailak antolatzen dituen ikastaro eta kanpainetan izena ematerakoan eta matrikulatzerakoan.

14. artikulua.

Abonatuak ez diren guztiek, ezarritako tasa ordainduz gero, eskubidea izango dute Hernaniko Udalaren kirol instalazioak erabiltzeko, jendearentzat zabalik dagoen ordutegian.

15. artikulua.

Erabiltzaile guztiek honako eskubide hauek dituzte:

1. Hernaniko Udalak eskaintzen dituen zerbitzu guztiak erabiltzeko eskubidea, zerbitzu bakoitzarentzat dagoen araudiaren arabera.
2. Erreklamazioen bat edo iradokizun bat egin nahi izanez gero, kirol instalazioetako zerbitzuen arduradunaren edota edozein langilearen izena eskatzeko eskubidea.
3. Hernaniko Kirol Zerbitzuetako langileen aldetik tratu egokia jasotzeko eskubidea.
4. Hernaniko Udalari bertako kirol instalazio edo kirol zerbitzuen gainean galdetzeko edo iradokizun nahiz erreklamazioen bat egiteko eskubidea.
5. Araudi hau Hernaniko Udalaren web orrian edo kiroldegiko harreran kontsultatzeko eskubidea.
6. Hernaniko Udalari emandako datu pertsonalak babesteko eskubidea, indarrean dagoen legerian jasota dagoenaren arabera.
7. Indarrean dagoen legerian jasotako gainerako eskubideak.

2. KAPITULUA: BETEBEHARRAK

16. artikulua.

Abonatu edota erabiltzaile guztiek honako betebeharrak hauek dauzkate:

1. Instalazioak eta zerbitzuak araudian zehaztu bezala eta berau garatzen duten xedapenek diotena beteaz erabiltzea, eta instalazioetako pertsonalak emandako erabilera jarraibideak betetzea. Instalazioetako pertsonalak eskatuz gero, egiaztagiria aurkeztu beharko da instalazioetara sartu eta berauek erabili ahal izateko.
2. Instalazioak eta bertako ekipamendua ondo zaintzea. Nahita egindako edo zabarkeriagatik gertatutako kalteak horiek eragindako pertsonaren kargura izango dira.

3. Beste erabiltzaile guztien eskubideak errespetatzea.
4. Ezarritako tasak epe barruan ordaintzea.
5. Hernaniko Kiroldetik langileei jakinaraztea funtzionamenduan okerren bat bada, zerbait apurtu bada edo araudi honetan esandakoa bete ez bada.
6. Instalazioetan gizalegez ibiltzea eta bertako langileen lana erraztea.
7. Indarrean dagoen legerian jasotako beste betebeharrak guztiak eta araudi honek ezarritakoak betetzea.

SEIGARREN TITULUA

KIROL EKIPAMENDUAK ERABILTZEKO ARAUAK

1.KAPITULUA: IGERILEKU ESTALIAK

17. artikulua.

Igerileku estalia igeri egitera doazenek erabiliko dute kirola egiteko edo denbora pasatzeko, baita igerian egiten ikastera edo dakitena hobetzera doazenek ere. Bestalde, herriko elkarte eta kirol-klubek ere erabiliko dute, klub edo elkarte bakoitzak igerilekuan antolatu duena gauzatzeko.

Behar bezala igeri egiten ez dakienak edo kontuz ibiltzen ez denak istripuren bat izango balu, ez litzateke Hernaniko Udalaren erantzukizuna izango. Horregatik, 8 urte baino gutxiagoko haurrak ezingo dira igerilekuan ibili adin nagusiko pertsona baten ardurapean ez bada, edo Kirol Zerbitzuak berak antolatutako ikastaro edo egitarauaren bateko partaideak ez badira. 19:00etatik aurrera 16 urte baino gutxiagokoek debekatua dute sarrera, adin nagusiko pertsona baten ardurapean ez badaude.

Kirol Zerbitzuak igerilekuaren kaleen banaketa programatu eta ondo ikusten den leku batean jarriko du, horretarako behar diren seinaleak jarrita, betiere igerilekuan egiten dena errespetatuz: bainu librea, ikastaroak, taldeen egitarauak eta egokitzat irizten den beste edozein jardura.

Eusko Jaurlaritzako Kontsumo eta Osasun Sailak indarren duen araudiak dioena betetze aldera, hona hemen igerilekurako araudia:

1. Igerilekua zabalik dagoen bitartean, beti egongo da titulazioa duen sorosleren bat. Soroslea bera da igerilekuaren arduradun nagusia, eta berak esandakoa bete egin behar da.
2. Igeri egiteko ontzietan ezingo dira 103 pertsona baino gehiago ibili. Instalazioan bertan, gehien jota, 301 lagun sartuko dira.
3. Derrigorrezkoa da igerilekura sartu aurretik dutxatzea.

4. Derrigorrezkoa da bainurako txanoa, bainu-jantzia eta txankletak edo uretako zapatilak erabiltzea (horretarako espresuki eramanak) .
5. Debekatuta dago igerilekuaren inguruan kaleko arropa edo oinetakoekin ibiltzea.
6. Debekatuta dago instalazioan erretzea, edatea edo jatea.
7. Debekatuta dute igerilekura sartzea azaleko edo bestelako gaixotasun kutsakorrek dituztenek.
8. Igerilekuko beste erabiltzaile guztiei begirunea zor zaie. Beraz, debekatuta dago igerilekuaren inguruan korrika ibiltzea, joko edo jolas arriskutsuetan ibiltzea, kortxo-ilaretan jartzea edo haiek oratzea, irteerako plataformetan saltoka ibiltzea eta zeharkako norabidean igeri egitea.
9. Kirolean jarduteko materialen bat behar duten pertsonak sorosleari eskatu behar diote. Erabiltzeko baimena jasoz gero, erabilpena amaitutakoan materiala sorosleari itzuliko zaio.
10. Igerian egiteko ezin da erabili, ez hegatsik, ezta gainerako igerilarietara kalte egin diezaikeen bestelako tresnarik ere, kirol entrenamenduetan, ikastaroetan edo sorosleak beste erabiltzaileei kalterik sortzen ez diela esaten duenean izan ezik.

2. KAPITULUA: KIROL ANITZEKO ARETOA

18. artikulua.

1. Gimnasioetan lehentasun osoa dute Kirol Zerbitzuek beraiek antolatutako ikastaro eta jardueretan parte hartzen duten pertsonak. Beraz, debekatuta dago gimnasioetan sartzea, antolatutako ikastaroak dauden bitartean.
2. Erabiltzaileek erabilitako materiala jaso eta bere lekura eramango dute, saio bakoitza bukatu ondoren.

3. KAPITULUA: FITNESS ARETOA.

19. artikulua.

1. Norberaren izerdia garbitzeko beharrezkoa da instalazio horietara toaila eramatea eta erabiltzea.
2. Debekatuta dago Fitness aretora janaria edo kristalezko ontziak eramatea; poltsak, motxilak, arropak, oinetakoak... aldageletako armairuetan utzi behar dira.
3. Debekatuta dute 16 urtetik beherakoek fitness aretoan sartzea, bertako makinak erabiltzean horien kargak edota konplexutasunak sor diezazkiekeen lesioen arriskuagatik. Hala ere, kirol zuzendaritzaren baimen berezia dutenek aretoa erabili ahal izango dute.
4. Materiala erabili ondoren bere tokian utzi behar da.
5. Hernaniko kiroldegiko langile teknikoak egitarau bereziak prestatuko ditu hala eskatzen duten erabiltzaileentzat. Aldez aurretik, ezarritako prezio publikoa ordaindu behar dute.

6. Aparatu kardiobaskularrak erabiltzeko gehieneko denbora 30 minutukoa izango da, oro har, guztiak okupatuta baldin badaude. Horrela, erabiltzaile guztiek izango dute makinak erabiltzeko aukera.

4. KAPITULUA: KIROL PISTAK, FRONTOIAK ETA SQUASH-AK

20. artikulua.

1. Kirol pistetan, frontoietan eta Squash-etan debekatua dago zorua zikindu, markatu edo hondatzen duten zapatilak erabiltzea, baita instalazioarekin zerikusirik ez duten beste kirol modalitate batzuetako tresnekin jokatzeko ere, Kirol Zerbitzuek baimendutakoak izan ezean.

2. Libre geratzen diren orduak edozein erabiltzailek erreserbatu ahal izango ditu, instalazioarenak berarenak diren kirol jarduerak sustatzen dituzten kirol elkarteen beharrei erantzuna eman ondoren.

5. KAPITULUA: SAUNAK

21. artikulua.

1. Sauna 16 urtetik gorako erabiltzaileentzat da. Hortik beherakoek ezingo dute erabili, pertsona heldu baten ardurapean ez badaude.

2. Kirol zerbitzuak saunak erabiltzeko txandak jar ditzake, ordutegi jakin bat dutelako.

3. Saunan sartu baino lehen, derrigorrezkoa da duxatzea; barruan, esertzerakoan edo etzaterakoan, zapiren bat erabili behar da. Debekatua dago kaleko jantziekin edo oinetakoekin sartzea.

4. Gorputzetik metalezko gaiak kendu behar dira: Belarritakoak, eskumuturrekoak, eraztunak, lepokoak... Sauna saioa nagusiki biluzik egingo da.

5. Gorputzaren garbitasunarekin erabat lotuta dagoen zerbitzua izanik, hori zaintzeko hartu behar diren neurri guztiak hartzea gomendatzen da.

6. Jarrera zuzena zaindu behar da beste erabiltzaileei hitzez edo jokabidez trabarik ez egiteko. Debekatuta dago poltsikoko telefonoa erabiltzea.

7. Gorputzaren tratamendurako eremuan debekatuta dago bizarra moztea, jatea, ura ez den beste edozer edatea, lozioak erradiadorei botatzea eta ilea tindatzea.

8. Sauna itxi egingo da aldizka, garbiketa lan bereziak egiteko. Aldez aurretik emango zaie erabiltzaileei horren berri.

6. KAPITULUA: ATLETISMO-PISTA

22. artikulua.

1. Zoru sintetikoan atletismoarekin zerikusia duten materialak soilik erabiliko dira ariketak egiteko; baloiarekin jokatzeko aukera ere badago.

2. Entrenamenduetarako materialak erabiltzen dituzten taldeek, entrenamendua amaitu bezain laster, materiala biltegietan utzi beharko dute.

3 Zerbitzu teknikoek jaurtiketen entrenamenduak arautuko dituzte (jabalina, pisua, diskoa eta mailua), erabiltzaile ororen segurtasuna eta instalazioen zaintza oso kontuan hartuta.

4 Hernaniko Udalak instalazioaren erabilera murriztuko du atletismoko txapelketa egunetan.

ZAZPIGARREN TITULUA ERRESERBAK EGITEKO ARAUDIA

1. KAPITULUA: KIROL ERABILERARAKO ERRESERBAK EGITEKO ARAUDIA.

26. artikulua.

- 1 Kirol pistak, frontoia, squash-a, igerilekuko kaleak eta tatamiak erreserba daitezke.
- 2 Kirol Zerbitzuak, Udalerriko ikastetxe eta kirol elkarteekin instalazioak erabiltzeko ordutegiak adostu ondoren, libre geratu diren orduak beste erabiltzaileentzat erabili ahal izango dituzte.
- 3 Kirol Zerbitzuek, behar izanez gero, instalazioak erreserbatzeko zozketa iragarriko dute. Esandako egun eta ordurako egin behar dira zozketan parte hartzeko eskaerak.
- 4 Zozketa bidez erreserbatzen ez diren kirol instalazioetako orduak zuzenean izena emanda aloka daitezke.
- 5 Urteko erreserben ordainketa edozein banketxetan helbideratutako kontuaren bitartez egingo da.
- 6 Kirol Instalazio guztien urteko erreserbak Hernaniko kiroldegiko bulegoetan egingo dira; noizbehinkakoak, erabili nahi den instalazioan bertan.
- 7 Ezinbesteko kasuren bat gertatuz gero, Kirol Zerbitzuek erreserba eten egin dezakete. Horrelakoetan, zenbatekoa itzuli egingo zaie erabiltzaileei.
- 8 Ikuskizun publikoen araudiaren eraginpean dauden kirol jarduerak 27. artikuluan jasotako arauak diotena bete beharko dute.

2. KAPITULUA: KIROLA EZ DIREN ERABILERETARAKO ERRESERBAK EGITEKO ARAUDIA.

27. artikulua.

Ikuskizunei buruzko araudia betetzen duen jardueraren bat antolatzeko Hernaniko Udaleko kirol instalazioaren bat erreserbatu nahi izanez gero, honako arau hauek bete beharko dira:

1. Eskaeran, eskatzailearen datuez gain, jarduerari buruzko datu garrantzitsuenak ere adierazi beharko dira: nor hartuko duen parte, zenbat iraungo duen eta abar. Eskaeragutxienez hilabete lehenago egin beharko da.
2. Eskaera onartuz gero, eskaera egin duenak honako hauek egin beharko ditu, jarduera eguna baino hamabost egun lehenago gutxienez:
 - a) Instalazioa erabili ahal izateko kontratua sinatu.

- b) Instalazioaren arduradunarekin bilera tekniko bat egin.
- c) Dagokion tasa ordaindu.
- d) Hernaniko Udalaren aldeko erantzukizun zibileko poliza bat aurkeztu, kasuan kasu ezarritakoa.
- e) Hernaniko Udalak instalazioak behar bezala zainduko direla ziurtatzeko ezartzen duen bermea jarri.

Hernaniko Udalaren instalazioak erabiltzeko baimena duten pertsonak edo erakundeek indarrean dagoen segurtasun araudia bete beharko dute, Eusko Jaurlaritzak onartutakoa.

3. Instalazioak, jarduera egiteko ez ezik, aurreko eta ondoko entsegu eta muntatze-lanetarako ere utziko dira, eta hori guztia Hernaniko Udalarekin hitzartu beharko da.

4. Instalazioak, erabili ondoren, hasieran zeuden bezalaxe utzi beharko dira.

5. Hernaniko Udalaren kirol instalazioetan ikuskizun publikoak antolatzeko baimena duten pertsona edo erakundeek honako betebeharrak izango dituzte:

- a) Esparruko iragarkiak errespetatzea.
- b) Ikuskizuna antolatzeak dakartzan gastuak ordaintzea.
- c) Ikuskizuna muntatzeko, segurtasuna bermatzeko, sarrera zaintzeko eta ikus-entzuleak kokatzeko beharrezkoak diren langileak kontratatzea.
- d) Segurtasun esparrua eta larrialdietako irteerak baimenik gabeko ibilgailuetatik eta bestelako trabetatik libre uztea.
- e) Esparruan eta kanpoaldeko segurtasun eremuan inolako saltokirik ez izatea.
- f) Jendea esparrura sartzeko ateak jarduera hasi baino gutxienez ordu eta erdi lehenago irekitzea.

ZORTZIGARREN TITULUA ZIGORRAK

28. artikulua.

Araudi honetan finkatutako arauak ez betetzea arau-haustea denez gero, zigorrak ezar daitezke.

29. artikulua.

Kirol instalazioetako arduradunek ahalmena dute behar den jokabidea erakusten ez dutenak ohartarazteko, edo hala egin behar izanez gero, kanpora botatzeko.

30. artikulua.

Hernaniko Udalaren kirol instalazioak erabiltzen dituztenek hango langileek esandakoari jaramon egin beharko diote. Instalazioak eta kirol materialak modu egokian erabiliko dituzte, eta pertsona edo ondasunei kalterik eginez gero, beraiek izango dute erantzukizuna.

31. artikulua.

Erabiltzaile orok onartua dauka kirola praktikatzeak dakarren arriskua.

Hernaniko Udalaren kirol instalazioak erabiltzerakoan sor daitezkeen kalteak ez zaizkio udalari egotziko, ezta kalte- ordainik eskatuko ere. Salbuespena: kaltea instalazioen arduradunen langileen erruz edo zabarkeriaz eragindakoa izatea, edo instalazioen nahiz hango materialen egoera txarrak eragindakoa izatea.

32. artikulua.

Erabiltzaileak, segidako egoeraren bat gertatuko balitz, sortutako kaltea ordaintzeaz gain, zigorra jasoko luke, betiere egindakoaren larritasuna kontuan hartuta: Hernaniko Udaleko langileek esandakoari jaramonik ez egitea edo esandakoaren kontrakoa egitea, kirol instalazioak eta materialak erabili behar ez diren zerbaitetarako erabiltzea eta lokaletan, instalazioetan edo beste erabiltzaileengan kalteren bat egitea.

Hona hemen arau-hauste eta zigorren sailkapena:

Hutsegite oso larriak:

Instalazioetan Hernaniko Udalaren edo beste erabiltzaile batzuen ondasunak lapurtzea.

Instalazioen erabilera arauak hautsiz, lokaletan, instalazioetan edo materialetan 300 euro baino gehiagoko kalteak eragitea.

Beste erabiltzaileei eta Hernaniko Udaleko langileei egindako erasoak, isekak. Eskandaluak eta pertsonen ohorearen edota intimitatearen aurka egindako erasoak. Bazkide-txartelak beste batzuei uztea edo faltsifikatzea, erabili ahal izateko. Berrito ere akats larrietan erortzea.

Era berean, hutsegite oso larritzat har daiteke 12. artikuluko 8. puntuan azaltzen dena ez betetzea.

Hutsegite larriak:

Udalaren kirol instalazioetan desordena publikoa eragitea, baina oso larria ez baldin bada.

Instalazioen erabilera arauak hautsiz 60 eta 300 euro arteko kalteak eragitea lokaletan, instalazioetan edo materialetan.

Beste erabiltzaileekin edo Hernaniko Udaleko langileekin begirunerik ez izatea.

Higieneari dagozkion arauak ez betetzea.

Berrito ere hutsegite arinetan erortzea.

Hutsegite arinak:

Instalazioen erabilera arauak hautsiz,

60 euro baino gutxiagoko kalteak eragitea lokaletan, instalazioetan edo materialetan.

Hernaniko Udaleko langileen argibideak ez betetzea.

Eragindako kalteen zenbatekoak bost urtean behin eguneratuko dira.

ZIGORRAK

Hutsegite oso larriak:

Bi urtetik laura bitarteko epean bazkide izateari uztea edota instalazioak erabiltzerik ez izatea.

Hutsegite larriak:

Hilabete batetik bi urtera bitarteko epean bazkide izateari uztea edota instalazioak erabiltzerik ez izatea.

Huts egite arinak:

Hilabeteko epean bazkide izateari uztea edota instalazioak erabiltzerik ez izatea.

33. artikulua

1. Instalazioak erabiltzerakoan egindako arau-haustea Buruntzaldeko udaletako Kirol Zerbitzuen lankidetzaren hitzarmenean partaide den beste udal bateko abonatuak eragiten duenean, zigorra ezartzeko tramitazioa arau- haustea gertatu den Udalaren organoak egingo du.

2. Zigorren akordioaren berri arau- hausleari eta hitzartuta dauden gainerako udaletako Kirol Zerbitzuei emango zaie, jakinaren gainean egon daitezten eta berehala aplikatu dadin.

3. Xedapen hauetan erregulatutako kirol instalazioen edo erakunde honekin hitzartuak dauden kirol instalazioen erabilerari dagokion araudia ez betetzeagatik zigortuak izan diren pertsonak ezin izango dituzte erabili araudi hau xede duten kirol instalazioak.

4. Aurreko debekua agintari eskudunak ezarritako zigorra betetzen den bitartean egongo da indarrean.

5. Erakunde honek edo beronekin hitzartuak dauden erakundeek kautelaz suspendituta aurkitzen diren pertsonak ere ezingo dituzte instalazioak erabili.

34 artikulua

Araudi honetan jasotako zigorrak Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioek zigortzeko duten ahalmenari buruzko 2/1998ko otsailaren 20ko Legeak dioena beteaz ezarriko dira.

BEDERATZIGARREN TITULUA AZKEN XEDAPENAK

35 artikulua.

Zerbitzu jakin batzuen erabilera zehazteko beste arau osagarri batzuk atera daitezke, erabiltzaile guztiak jakinaren gainean uzteko.

36 artikulua.

Araudi honek jasotzen ez dituen kasuak, hasiera batean behintzat, Kirol Saileko arduradunek bideratuko dituzte.

37 artikulua.

Araudi honi egin dakizkiokeen aldaketak modu egokian emango dira argitara, ahalik eta gehien ezagutarazteko.

38 artikulua.

Araudi hau onespenerako tramite guztiak bete ondoren sartuko da indarrean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta hogeita hamar egunera.

Hernanin, 2014ko

ren an